

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

García Malo sailburua Gizarte Arretako Etika Batzordea eratzeko bileraren buru izan da

Kontsultarako organoa da eta gizarte zerbitzuen eta zuzenbideko zazpi profesionalak osatzen dute

Martes, 03 de mayo de 2011

María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria izan da buru gaur goizean Gizarte Arretako Etika Batzordea eratzeko Nafarroako Jauregian egin den bileran.

Organo hori abenduaren 14ko Gizarte Zerbitzuen gaineko 15/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera eratu da. Legeko 46. artikulua dio Etika Batzordea kontsultarako organo independentea dela eta haren helburua gizarte jardunaren alderdi etikoak identifikatu, aztertu eta ebaluatzea dela pertsonen errespetua, duintasuna eta intimitatea izateko duten eskubidea bermatzeko bazterketarik egin gabe. Egiteko bera dute, haien eskumenen barruan, sektoreko etika batzordeek eta etika batzorde nagusiek.

Etika Batzorde hori arautzen duen Foru Dekretuak ezartzen duenaren arabera, zazpi pertsonak osatu behar dute; horietatik seik gizarte zerbitzuen alorrekin loturiko profesionalak izan behar dute eta kasu kasuko profesionalen elkargoek proposaturikoak izango dira. Halaber, partaide horietatik lauk, behintzat, gutxienez 120 orduko trebakuntza eta etikan esperientzia izan beharko dute eta, zuzenbidean aditua den batek ere (Abokatuen Elkargoak proposaturikoa) batzordean parte hartu beharko du.

Gaur eratu duten Etika Batzordea honako hauek osatzen dute: Sara Aísa Lusa, hezkuntzaren alorrekoa, Gemma Mañu Echaide, gizarte zerbitzuen alorrekoa eta Pilar Montero Moso, osasunaren alorrekoa (hiruak gizarte sektorekoak); Maite Pérez Echarri eta Estibaliz Zubiera Satrustegui sektore pribatuko gizarte zerbitzuetakoak; Juana Carballín Yárnoz, sektore pribatuko osasunaren alorrekoa, eta Beatriz Pablo Murillo, Abokatuen Elkargokoa.



García Malo sailburua Gizarte Arretako Etika Batzordea eratzeko bileraren buru

Etika Batzordearen egitekoak

Gizarte zerbitzuetan etika aplikatzeak zera esan nahi du: arreta egokia eskaintzea prozedura eta programetan eta baliabideen eta prestazioen bidezko banaketa egitea, pertsonen autonomia lortze aldera. Zentzu horretan, etika batzordeak profesionalen, erabiltzaileen, familien eta legezko ordezkarien, instituzioen eta gizarte zerbitzuetan parte hartzen duten beste eragile batzuen zerbitzurako daude eta aipatutako helburuekin bat datozen erabakiak hartzeko orduan aholku etikoak ematen dituzte.

Zehazki, hauek dira batzorde horiek arautzen dituen foru dekretuak ezarritako egitekoak:

a) Gizarte arretari esker espero diren onuren inguruan esku hartzea egoki den ala ez kontsultatzea eta ebatzea.

b) Kasu baten inguruko aholkularitza eskatzen denean, kasu horiei buruzko txostenak egitea.

c) Profesionalen, hartzaileen eta instituzioen arteko gatazka etikoak dauden egoeretan egin beharreko erabaki prozesuen inguruko aholkularitza ematea.

d) Gatazka etikoak sortzen diren egoeretan jarduteko protokoloak proposatzea.

Etika batzordeek ezin dute gizarteko esku hartzeen prozeduretako alderdi teknikoak kaltetzen dituzten salaketen edo erreklamazioen inguruko adierazpenik egin edo adituak bailitzan baloratu. Horrez gain, ezin izango dute, ezta ere, aztertzen diren kontuetako profesionalen behin-behineko erantzukizunen inguruko epairik eman. Egitekoak, gainera, kasuan kasuko profesionalen elkargoetako eskumenak (etikari eta profesionalen deontologiari dagokienez) kontuan hartuz bete behar dituzte.